

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin betiko onespena ematea hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuaren tasaren 2021eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetako erroldei

Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko irailaren 9ko bilkuran erabaki zuen behin-behineko onespena ematea hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuaren 2021eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetako tasak ordaindu behar dituztenen erroldei (espediente zenbakia: 2020/1/S328), eta erabaki horren berri 2021eko irailaren 15eko ALHAOn (105 zenbakia) eman zen. Erabaki horren aurka inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin-behineko erabaki hori behin betiko bihurtzen da, eta jendaurrean jartzen da, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoak betetzeko.

2021eko azaroaren 1etik 2022ko urtarrilaren 31ra bitarteko egun baliodunetan (biak barne) ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuari dagozkion 2021eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetako tasak.

Ordainagiriak helbideratuta ez dituzten zergadunek udaletxeko hiritarren kutzazaineen eta euskal administrazioaren ordainketa pasabidean ordaindu ahal izango dute zerga hori, udalaren web orriaren bidez (<https://udala.amurrio.eus/cas/servicios/hacienda-y-recaudacion/pasare-la-de-pagos>) eta Eusko Jaurlaritzaren "Mipago Wallet" aplikazioaren bidez.

Epe hori igarotakoan, ordaindu gabeko kuotak kobratzeko premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, eta kobratu beharrekoari ehuneko 20ra arteko errekar-gua aplikatuko zaio, indarrean dagoen Zerga Bilketarako Araudi Orokorrean ezarritako xedapenekin bat etorriz; errekar-gu hori eta luzapenarena bateragarriak dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Amurrio, 2021eko urriaren 7a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA